EUSKO JAURLARITZA
OGASUN ETA EKONOMIA SAILA
*Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza*

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMÍA
*Dirección de Economía y Planificación*

# INTERREG V-A ESPAINIA-FRANTZIA-ANDORRA 2014-2020 LANKIDETZA-PROGRAMA

## Egoeraren txostena 2020




*2020ko Ekaina*

Interreg
POCTEFA

**1.- Sarrera**

Europar Batasunaren Tratatuak (EB) kohesio-politikaren helburu gisa ezartzen du ekonomia-, gizarte- eta lurralde-desberdintasunak murriztea, gutxien garatuta dauden eskualdeei laguntza berezia eskainiz.

Kohesio-politika 1989an jaio zen eta orduz geroztik eboluzionatzen eta aurrera egiten joan da. Lehen urteetan, kohesio-politikak Europan eta eskualde-mailan eragin txikia zuten proiektu nazional jakin batzuk finantzatzen zituen. Denbora igaro ahala funtsezko printzipioak sartu dira, adibidez laguntzak Europar Batasuneko eskualde pobreenetan kontzentratzea, urte anitzeko programazioa, inbertsio estrategikoagoak, eta tokiko eta eskualdeko bazkideen parte-hartze handiagoa. Era berean, azpiegitura fisikoetan egindako inbertsioek berrikuntzan, ETEen laguntzan, enpleguan eta gizarteratzean egindako inbertsioei laga diete protagonismoa.

Gaur egun, kohesio-politika Europar Batasunaren inbertsio-tresna nagusia da. Bere helburua enplegua sortzen, enpresen lehiakortasunean, hazkunde ekonomikoan, garapen jasangarrian eta herritarren kalitatea hobetzen laguntzea da.

Hori lortzeko, Europa 2020 estrategiaren lehentasunei dagozkien 11 helburu definitu dira esparru-juridiko berrian. Inbertsioaren eragina maximizatzeko, estatu kideek eta eskualdeek, Europako funtsak helburu horietako batzuetan soilik kontzentratu behar dituzte; dauzkaten lurralde erronka espezifikoak eta beraien garapen beharrak kontutan izanik. Erreformaren muina EBak lagundutako inbertsioak emaitzekiko orientazio gehiago izatean datza, horretarako, adierazleak, txostenak eta kalitate gehiagoko ebaluazioak erabili behar dira.

Azken finean, kohesio-politika berria ez dago Europa 2020 Estrategiarekin, eta bere helburu nagusiekin, lerrokatuta soilik. Izan ere, Europako Seihilekoarekin eta EBren gobernantza ekonomikoaren prozesuarekin ere lotuta dago.

2014-2020 aldirako kohesio-politikak 351.800 milioi euro izango ditu, Europar Batasunaren aurrekontuaren herena gutxi gorabehera. Baliabide horiek honako helburu hauetara bideratuko dira: **“Inbertsioa Hazkundean eta Enpleguan”** eta **“Lurralde Lankidetza”**.

**Lurralde Lankidetza** helburura bideratutako baliabideak 8.948 milioi euro dira eta honako modu honetan esleitzen dira: % 74 mugaz gaindiko lankidetzarako, % 20 nazioz gaindiko lankidetzarako, eta gainerako % 6 eskualde arteko lankidetzarako.

## 2.- “Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra 2014-2020” lankidetza-programa

2015eko maiatzaren 19an onartu zen “Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra 2014-2020 (POCTEFA)” lankidetza-programa, Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzera bideratutako erkidegoko laguntzaren bosgarren belaunaldia da.

Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) bitartez programa honi emandako zenbatekoa 189 milioi euro da, aurreko 2007-2013 aldiko programarekin alderatuta % 12ko igoera ekarriz. Euskal Autonomia Erkidegoari 19,33 milioi dagozkio, hau da, baliabideen % 20.

Gune hautagarrian kokatuta dauden hiru estatuen artetik gutxienez ere bi estatuetako bazkide bana inplikatuta dauden lankidetza-proiektuak finantzatuko dira, eta erakunde publiko nahiz pribatuek lortu ahal izango dute finantzaketa.

EGEFren interbentzio tasa, gehienez, lankidetza operazioen guztuizko kostu aukeragarriaren %65 izango da. Estatuko laguntzen arautegia aplikagarri zaien kasuetan izan ezik.

POCTEFAren Kudeaketa Agintaritza berriz ere Pirinioetako Lan Elkartea (PLE) izango da; 1983an sortu zen eta Frantziako 3 eskualde (Akitania, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussillon), 5 autonomia-erkidego (Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Errioxa eta Katalunia) eta Andorrako Printzerria biltzen ditu.

Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra 2014-2020 Programak 5 ardatz nagusi definitu ditu, garapen adimendun, jasangarri eta bateratzailerako Europa 2020 Estrategiarekin bat datozenak erabat.

| Ardatza Nagusiak | EGEF Programa € | POCTEFA | | % |
|---|---|---|---|---|
| | | Inbertsio Lehentasuna | Milioi € | |
| **1. ardatza** Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea | **49.834.656** | 1 b | 40,9 | **%26** |
| | | 3 b | 8,9 | |
| **2. ardatza** Aldaketa klimatikorako egokitzapena sustatzea, baita arriskuen prebentzioa eta kudeaketa ere | **28.476.946** | 5 a | 10,7 | **%15** |
| | | 5 b | 17,8 | |
| **3. ardatza** Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa, erabilera jasangarria sustatzea | **48.054.847** | 6 c | 24,9 | **%25** |
| | | 6 d | 23,1 | |
| **4. ardatza** Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea | **24.917.328** | 7 c | 24,9 | **%13** |
| **5. ardatza** Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea | **26.697.137** | 8 CTE | 12,4 | **%14** |
| | | 9 a | 14,2 | |
| **6.** ardatza Laguntza Teknikoa | **11.360.483** | | | **%6** |
| **EGEF Guztira** | **189.341.397** | | | **%100** |

Lehen ardatzak, ***"Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea",*** finantzatuko dituen proiektuek honako helburu hauek dituzte: mugaren bi aldeetako lurraldeko eragileen arteko lankidetza indartzea I+D+I arloan; lankidetzari esker, teknologia berritzaileak garatzen laguntzea baliabide naturalen arloan; eta mugaz gaindiko lurraldeko enpresak garatzeko jarduera bateratuak laguntzea nazioartean. Ardatz horrek 49,8 milioi euro ditu (aurrekontuaren % 26).

Bigarren ardatza, ***"Aldaketa klimatikorako egokitzapena sustatzea, baita arriskuen prebentzioa eta kudeaketa ere"***, lurraldeen aldaketa klimatikorako egokitzapena hobetzen duten eta arrisku espezifikoei eta hondamendi naturalen kudeaketari aurre hartzeko eta erantzuteko lurraldeko eragileen gaitasuna hobetzen duten proiektuetara dago bideratuta. Ardatz horretara 28,5 milioi euro bideratzen dira (aurrekontuaren % 15).

Hirugarren ardatzak, ***"Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa, erabilera jasangarria sustatzea"***, garapen jasangarriko ikuspegi bateratuen bidez ondare naturalari eta kulturalari balioa ematen dioten eta mugaz gaindiko ekosistemen kalitatea babesten eta hobetzen duten proiektuak finantzatuko ditu. Ardatz horrek 48 milioi euro ditu (aurrekontuaren % 25).

Laugarren ardatzak, ***"Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea"***, mugaz haraindiko pertsonen eta merkantzien joan-etorriak eta mugikortasuna hobetzeko xedez

mugaz gaindiko garraio-eskaintza jasangarria hobetzen duten proiektuak izango ditu oinarri. Ardatz honek 24,9 milioi euro ditu (aurrekontuaren % 13).

Azken ardatzak, ***“Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea”***, enplegurako eta zerbitzuetarako sarbidea hobetzeko xedez potentzial endogenoa, prestakuntza-sistemen garapena eta mugaz gaindiko lurraldeko pertsonen eskumenak sustatzen dituzten proiektuak finantzatuko ditu. Ardatz horrek 26,7 milioi euroko aurrekontua du (aurrekontuaren % 14).

Lehenengo deialdi honetan parte hartu duten EAEko bazkideak zuzenbide pribatuko 24 erakunde eta zuzenbide publikoko 12 erakunde ditugu. Erakunde horietako hamar proiektuburu izan dira, hau da, proiektua bere osotasunean gauzatuko dela bermatzeaz arduratu dira.

**3.- Proiektuak hautatzea**

1299/2013 (EE) araudiaren 12. artikuluaren arabera, Jarraipen Batzordeak erabakitzen du deialdi mota, programaren aurrerapenaren arabera eta indarrean dauden erregelamendu-xedapenak kontuan izanik.

2015eko irailaren 10ean Kudeaketa Agintaritzak proiektuen lehen deialdia argitaratu zuen, eta 2015eko azaroaren 10era arte Programako ardatz guztiei irekita egon zen. Proiektu-deialdi honetarako eskura dagoen EGEF laguntzaren zenbatekoa 71,2 milioi euro da (aurrekontuaren % 40, Laguntza Teknikoa salbu), ardatz nagusi bakoitzaren aurrekontuaren % 60ko mugarekin.

2016ko azaroaren 10ean Kudeaketa Agintaritzak proiektuen bigarren deialdia argitaratu zuen. Programako ardatz guztiei irekita egon zen baina proiektuen aukeraketa bi fasetan egitearen berezitasunarekin. Proiektu-deialdi honetarako eskura dagoen EGEF laguntzaren zenbatekoa 71,2 milioi euro da (aurrekontuaren % 40, Laguntza Teknikoa salbu).

2019ko otsailaren 7an, Kudeaketa Agintaritzak jakinarazi zuen proiektuen hirugarren deialdia ardatz guztietara irekita zegoela, baita inbertsio-lehentasun guztietara ere, 3. ardatzeko 6c inbertsio-lehentasunera izan ezik, hari esleitutako zuzkidura agortu egin baita. Proiektu-deialdi honetarako erabilgarri dagoen EGEF laguntzaren diru-zenbatekoa gainerako kopurua da; alegia, 35,8 M €, azken deialdia baita. Azken deialdi honen berezitasuna da ezen, edozein arrazoi dela-eta lehen, bigarren eta hirugarren deialdietan programatutako proiektuen diru-kopururen bat exekutatzen ez bada, kopuru

horiek deialdi honetan hasieran aurreikusitakoa handituko dutela eta beste hautagai batzuk programatuko direla.

### 3.1.- Lehen Deialdia

Lehen deialdi honetan 122 proiektu aurkeztu dira, eta guztira EGEF laguntzako 152 milioi euro dira; hau da, EGEF funtserako dagoenaren bikoitza baino gehiago. Proiektu bakoitzeko eskatutako EGEF funtsaren batez bestekoa 1.250.000€ da.

Aurkeztutako 122 proiektuen onargarritasuna aztertu ondoren, 3 proiektuk ez dute betetzen onarpen-betebeharren bat (“Cardioprotect”-ek proiektua ez du bidali paperean, eta hori ezinbesteko baldintza da onartua izateko, “Piragua” proiektuak ez du izenpea konpontzen, “Trans Salut Cerdanya” proiektuak ez du konpontzeko dokumentazioa bidaltzen), eta beraz 119 proiektu onartu dira. Proiektu guzti horietatik 58k dute euskal sustatzaileen partaidetza.

#### 3.1.1.-2016ko Lehen Programazio Batzordea

POCTEFA 2014-2020 programaren lehen Programazio Batzordea 2016ko maiatzaren 11n Jakan bilduko da, eta mugaz gaindiko lankidetzarako 58 proiektu programatzen ditu onartuak izan diren 119 proiektuen artetik, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 71,2 milioi euroko laguntza jasoz.

Autonomia erkidego guztien artetik, Euskal Autonomi Erkidegoan programatu da EGEF zenbatekorik handiena; 11 milioi euro. Zenbateko handiena duen hurrengo autonomia erkidegoa Kataluniakoa da, 9,3 milioi eurorekin. Frantziar eskualdeei dagokienez, Occitanieko eskualdeak du programatutako EGEF zenbatekorik handiena; 34 milioi euro.

Ardazkako sailkapenari erreparatuta, azpimarra dezakegu 3. ardatza, “Tokiko baliabideen babesa, balorazioa eta erabilera jasangarria sustatzea”, EGEF funts gehien jaso dituena dela, lehenengo deialdian; 24 milioi euro 17 proiekturentzako. 1. ardatza, “Berrikuntza eta Lehiakortasuna dinamizatzea”, 18 proiekturekin, onartutako proiektu gehien duen ardatza da eta EGEFen ia 20 milioi euro jasoko dituzte. 2. ardatzean, “Aldaketa klimatikorako egokitzapena sustatzea, baita arriskuen prebentzioa eta kudeaketa ere”, EGEF funtsaren 10,5 milioi euro programatu dira 10 proiekturentzako. 4. ardatzak, “Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea”, EGEF funtsaren 7 milioi euro jasoko ditu 3 proiekturentzako. Eta azkenik, 5. ardatzean, “Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea”, 10 proiektu programatu dira eta EGEF funtsaren ia 10 milioi euro jasoko dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoa programatu diren 58 proiektu horietatik 33 proiektutan dago, hau da, programatutako proiektu guztien % 57an. 33 proiektu horien kostua 61 milioi euro ingurukoa da, eta horietatik 17 milioi euro euskal bazkideen inbertsio esklusibokoak dira, EGEF funtsaren ia 11 milioi euroko laguntza jasoko dutela.

Euskal bazkidea duten proiektuen inbertsioaren batezbestekoa 503.667 eurokoa da. Onartutako proiektuen artean, inbertsio txikiena duena 74.900 eurokoa da (Florapyr) eta inbertsio handiena duena 2.117.683 eurokoa (Txinbadia +).

Lehenengo deialdi honetan, EGEF laguntzen onuradun izan dira zuzenbide publikoko 25 erakunde eta zuzenbide pribatuko 12. Erakunde horietako hamar proiektuburu izan dira; alegia, proiektua bere osotasunean gauzatuko dela bermatzeaz arduratu dira.

Ardatzen araberako sailkapena eginez honako hau adieraz dezakegu: 1. ardatzean, "*Berrikuntza eta Lehiakortasuna dinamizatzea*", programatutako 18 proiektuetatik 12 EAEko sustatzaileak dituzten proiektuak dira, eta jasoko duten EGEF funtsaren laguntza 4 milioi euro inguru izango da. 2. ardatzean, "*Aldaketa klimatikorako egokitzapena sustatzea, baita arriskuen prebentzioa eta kudeaketa ere",* programatutako 10 proiektuetatik 6 proiektu EAEko sustatzaileenak dira, eta 749.000 euroko laguntza jasoko dute. 3. ardatzean, *"Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa, erabilera jasangarria sustatzea",* programatutako 17 proiektuetatik 8 proiektuk EAEko sustatzaileak dituzte, eta EGEF funtsaren 4,1 milioi euro jasoko dituzte. 4. ardatzean, *"Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea",* 3 proiektu programatu dira eta horietako 2tan EAEko partaidetza dago, jasoko duten laguntza 1,5 milioi euro izanik. Eta azkenik, 5. ardatzean, "*Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea",* 10 proiektu programatu dira eta horietatik 5 EAEko sustatzaileek aurkeztu dituzte, EGEF funtsaren 700.000 euro inguru lortuz.

EAEko bazkideen inbertsiorik handiena duten proiektuak 3. ardatzean, "Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa, erabilera jasangarria sustatzea", kontzentratzen dira, EAEko sustatzaileen inbertsioaren % 38,4 bilduz, eta ondoren, oso hurbil, 1. ardatzean, "Berrikuntza eta Lehiakortasuna dinamizatzea", bilduta dauden proiektuak agertzen dira, % 37 bilduz.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**Interreg V-A ESPANIA-FRANTZIA-ANDORRA 2014-2020. 1 Deialdia**
**EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak**
**2016**

| Ardatza | Invertsio Lehentasuna | Proiektua Kopurua | Akronimoa | | Inbertsioa guztira | EGEF guztira | EAEKO bazkidearen inbertsioa | EAEko bazkidearen EGEF |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 1b | | EFA001/15 | TransferINN | 1.776.942 | 1.155.013 | 500.543 | 325.353 |
| | | | EFA003/15 | HEALTH LSR | 1.978.590 | 1.286.083 | 688.150 | 447.298 |
| | | | EFA005/15 | INNOLACT | 1.788.147 | 1.162.295 | 677.507 | 440.380 |
| | | | EFA037/15 | CYCLALG | 1.415.652 | 920.174 | 558.655 | 363.126 |
| | | | EFA038/15 | REFBIO II | 2.124.931 | 1.381.203 | 536.559 | 348.764 |
| | | | EFA048/15 | PyrenEOS | 2.214.355 | 1.316.951 | 163.456 | 106.246 |
| | | | EFA050/15 | COMPETITV'EKO | 1.008.605 | 655.593 | 307.260 | 199.719 |
| | | | EFA064/15 | REVALPET | 1.258.999 | 818.349 | 288.099 | 187.264 |
| | | | EFA077/15 | CONNECT Innovation! | 1.833.732 | 1.191.926 | 1.089.702 | 708.306 |
| | | | EFA090/15 | Transfron3D | 1.649.649 | 1.052.525 | 865.968 | 562.879 |
| | | | EFA092/15 | iForWood | 1.995.962 | 1.297.375 | 260.367 | 169.239 |
| | | | EFA099/15 | FOODYPLAST | 1.694.765 | 1.101.597 | 215.469 | 140.055 |
| 1b guztira | | 12 | | | 20.740.330 | 13.339.086 | 6.151.735 | 3.998.628 |
| 1 ardatza guztira | | 12 | | | 20.740.330 | 13.339.086 | 6.151.735 | 3.998.628 |
| | | | EFA028/15 | CANOPEE | 926.694 | 602.351 | 137.895 | 89.632 |
| | | | EFA056/15 | REPLIM | 1.002.346 | 651.526 | 111.634 | 72.563 |
| | | | EFA081/15 | CLIM'PY | 913.268 | 567.189 | 83.536 | 54.298 |
| | | | EFA082/15 | OPCC-2 | 1.173.920 | 763.048 | 105.079 | 68.301 |
| | | | EFA100/15 | FLORAPYR | 822.737 | 534.780 | 74.902 | 48.687 |
| 5a guztira | | 5 | | | 4.838.965 | 3.118.893 | 513.046 | 333.481 |
| | | | EFA046/15 | MAREA | 1.545.037 | 1.004.273 | 639.265 | 415.522 |
| 5b guztira | | 1 | | | 1.545.037 | 1.004.273 | 639.265 | 415.522 |
| 2 ardatza guztira | | 6 | | | 6.384.002 | 4.123.166 | 1.152.311 | 749.003 |
| | | | EFA027/15 | Routes singulières | 2.213.540 | 1.438.801 | 896.000 | 582.400 |
| | | | EFA040/15 | EAS | 598.488 | 389.018 | 417.028 | 271.069 |
| | | | EFA054/15 | TXINBADIA+ | 3.744.660 | 2.434.029 | 2.117.684 | 1.376.494 |
| | | | EFA060/15 | CREACITY | 1.153.848 | 750.001 | 384.615 | 250.000 |
| 6c guztira | | 4 | | | 7.710.536 | 5.011.848 | 3.815.327 | 2.479.963 |
| | | | EFA057/15 | GREEN | 2.040.747 | 1.310.925 | 262.688 | 170.747 |
| | | | EFA062/15 | H2Ogurea | 3.744.737 | 2.434.079 | 1.699.634 | 1.104.762 |
| | | | EFA079/15 | HABIOS | 2.203.413 | 1.432.218 | 266.771 | 173.401 |
| | | | EFA089/15 | ECOGYP | 2.188.765 | 1.422.697 | 220.887 | 143.577 |
| 6d guztira | | 4 | | | 10.177.662 | 6.599.919 | 2.449.980 | 1.592.487 |
| 3 ardatza guztira | | 8 | | | 17.888.197 | 11.611.767 | 6.265.307 | 4.072.450 |
| | | | EFA042/15 | TRANSFERMUGA2 | 829.940 | 539.461 | 414.970 | 269.730 |
| | | | EFA117/15 | EDERBIDEA | 9.402.306 | 6.111.499 | 1.815.462 | 1.180.050 |
| 7c guztira | | 2 | | | 10.232.247 | 6.650.960 | 2.230.432 | 1.449.780 |
| 4 ardatza guztira | | 2 | | | 10.232.247 | 6.650.960 | 2.230.432 | 1.449.780 |
| | | | EFA041/15 | ETESS | 1.303.070 | 846.995 | 309.033 | 200.871 |
| | | | EFA043/15 | Empleo AE | 256.012 | 166.408 | 128.006 | 83.204 |
| | | | EFA076/15 | De mar a mar | 1.990.390 | 1.293.754 | 158.000 | 102.700 |
| | | | EFA097/15 | PyireneFP | 1.980.687 | 1.287.446 | 269.948 | 175.466 |
| 8e guztira | | 4 | | | 5.530.159 | 3.594.603 | 864.987 | 562.242 |
| | | | EFA034/15 | Limitis Forum | 589.240 | 383.006 | 187.180 | 121.667 |
| 9a guztira | | 1 | | | 589.240 | 383.006 | 187.180 | 121.667 |
| 5 ardatza guztira | | 5 | | | 6.119.399 | 3.977.609 | 1.052.167 | 683.909 |
| Guztira | | 33 | | | 61.364.175 | 39.702.587 | 16.851.952 | 10.953.820 |

Interreg POCTEFA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**INTERREG V- A ESPANIA-FRANTZIA-ANDORRA 2014-2020. 1ª Deialdia**
**EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak**

| Ardatza | LI | Proiektu Zenbakia | Akronimoa | Bazkideak | EGEF |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 1b | EFA001/15 | TransferINN | Azaro Fundazioa | 219.731,56 |
| | | | | MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA J.M.A. S.COOP. | 105.621,38 |
| | | EFA003/15 | HEALTH LSR | LEARTIKER, S.COOP. | 447.297,50 |
| | | EFA005/15 | INNOLACT | Ayuntamiento de Idiazabal | 65.000,00 |
| | | | | Fundación Hazi Fundazioa | 56.473,26 |
| | | | | Leartiker SCoop | 318.906,25 |
| | | EFA037/15 | CYCLALG | NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario | 220.335,05 |
| | | | | TECNALIA. Fundación TECNALIA Research & Innovation | 142.790,70 |
| | | EFA038/15 | REFBIO II | ASOCIACIÓN INSTITUTO BIODONOSTIA | 126.100,00 |
| | | | | ASOCIACIÓN INSTITUTO DE INVESTIGACIÓN SANITARIA BIOCRUCES | 61.913,24 |
| | | | | Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias | 160.750,37 |
| | | EFA048/15 | PyrenEOS | Fundación Hazi Fundazioa | 106.246,40 |
| | | EFA050/15 | COMPETITV'EKO | Cámara de Comercio, Industria & Navegación de Gipuzkoa | 99.732,51 |
| | | | | Fundación Deusto | 99.986,52 |
| | | EFA064/15 | REVALPET | Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea | 187.264,09 |
| | | EFA077/15 | CONNECT Innovation! | Agencia de Desarrollo del Bidasoa, S.A. | 390.000,00 |
| | | | | Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco | 79.950,00 |
| | | | | Ayuntamiento de Irun | 130.000,00 |
| | | | | MU ENPRESAGINTZA S.COOP. | 108.356,28 |
| | | EFA090/15 | Transfron3D | AERNNOVA ENGINEERING DIVISION S.A.U. | 164.210,00 |
| | | | | Fundación TECNALIA Research and Innovation | 211.792,00 |
| | | | | MIZAR ADDITIVE MANUFACTURING S.L.U. | 62.739,00 |
| | | | | Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea | 124.138,00 |
| | | EFA092/15 | iForWood | FORESPIR | 13.206,26 |
| | | | | Fundación Hazi Fundazioa | 156.032,50 |
| | | EFA099/15 | FOODYPLAST | Leartiker SCoop | 140.054,82 |
| 2 | 5a | EFA028/15 | CANOPEE | FORESPIR | 17.653,84 |
| | | | | FUNDACION HAZI FUNDAZIOA | 71.977,77 |
| | | EFA056/15 | REPLIM | Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea | 72.562,65 |
| | | EFA081/15 | CLIM'PY | Agencia Estatal Consejo Superior de Investigaciones Científicas (sede Madrid) | 30.022,06 |
| | | | | Agencia Estatal de Meteorología de España (sede en Madrid) | 24.276,16 |
| | | EFA082/15 | OPCC-2 | Consorcio de la Comunidad de Trabajo de los Pirineos (CTP) | 56.689,73 |
| | | | | FORESPIR | 11.611,41 |
| | | EFA100/15 | FLORAPYR | Aranzadi Zientzia Elkartea - Sociedad de Ciencias Aranzadi | 35.103,67 |
| | | | | Bazzania S.C., Investigación y Gestión en Biodiversidad | 13.583,31 |
| | 5b | EFA046/15 | MAREA | Dirección de Atención de Emergencia y Meteorología, Departamento de Seguridad, EUSKO JAURLARITZA. | 156.000,00 |
| | | | | FUNDACIÓN AZTI – AZTI FUNDAZIOA | 259.522,00 |
| 3 | 6c | EFA027/15 | Routes singulières | Ayuntamiento de Barakaldo | 291.200,00 |
| | | | | Ayuntamiento de Irun | 291.200,00 |
| | | EFA040/15 | EAS | Arabako Foru Aldundia-Diputación Foral de Álava | 19.451,00 |
| | | | | Bizkaiko Foru Aldundia-Diputación Foral de Bizkaia | 19.451,00 |
| | | | | Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco | 212.716,00 |
| | | | | Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa | 19.451,00 |
| | | EFA054/15 | TXINBADIA+ | Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco | 1.376.494,30 |
| | | EFA060/15 | CREACITY | AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA | 250.000,00 |
| | 6d | EFA057/15 | GREEN | FORESPIR | 14.724,97 |
| | | | | FUNDACION HAZI FUNDAZIOA | 156.022,01 |
| | | EFA062/15 | H2Ogurea | Agencia Vasca del Agua. | 643.854,95 |
| | | | | Gipuzkoako Foru Aldundia Diputacion Foral de Gipuzkoa | 202.370,25 |
| | | | | Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak S.A | 258.537,20 |
| | | EFA079/15 | HABIOS | Fundación Hazi Fundazioa | 173.401,35 |
| | | EFA089/15 | ECOGYP | DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA | 61.762,49 |
| | | | | Fundación Hazi Fundazioa | 81.814,11 |
| 4 | 7c | EFA042/15 | TRANSFERMUGA2 | GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi | 269.730,43 |
| | | EFA117/15 | EDERBIDEA | Ayuntamiento de Irun | 259.123,85 |
| | | | | DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | 920.926,15 |
| 5 | 8e | EFA041/15 | ETESS | CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE EUSKADI | 200.871,45 |
| | | EFA043/15 | Empleo AE | AECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi | 83.203,90 |
| | | EFA076/15 | De mar a mar | AYUNTAMIENTO DE BILBAO | 102.700,00 |
| | | EFA097/15 | PyireneFP | GOBIERNO VASCO - DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA | 175.466,25 |
| | 9a | EFA034/15 | Limitis Forum | HeziZerb elkartea - Asociación HeziZerb (Educación y Servicios) | 49.055,50 |
| | | | | Instituto de Reintegración Social de Álava | 72.611,50 |
| EGEF guztira | | | | | 10.953.769,95 |

Interreg POCTEFA

### 3.2.- 2. Deialdia

Proiektuen bigarren deialdian, 169 proiektu aurkeztu eta 167 onartu dira eta, guztira, EGEF laguntzako 152 milioi euro eskatu dira; hau da, EGEFrako dagoenaren bikoitza baino gehiago. Proiektuko eskatutako batez besteko EGEFa 1.250.000 eurokoa da. 167 hautagaitza horietatik 65ek dute euskal sustatzaileen partaidetza.

#### 3.2.1.- 2017ko urtearen Programazio Batzordea.

Hautagaitzak aztertu ostean, Programazio Batzordeak, 2017ko apirilaren 11n, 106 hautagaitza bigarren deialdiaren bigarren fasera joatea ebatzi zuen. Horietatik, 101ek aurkeztu zuten eskatutako dokumentazioa garaiz. Bigarren fase horretan onartutako hautagaitza guztietatik 37k dute Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileen partaidetza.

2014-2020 POCTEFA Programazio Batzordea Biarritzen bildu zen 2017ko azaroaren 8an eta bigarren fasean onartutako 101 proiektuetatik mugaz haraindiko 62 lankidetza-proiektu programatu zituen.

Autonomia erkidego guztien artetik, Kataluniako Autonomi Erkidegoan onartu da EGEF zenbatekorik handiena; 14 milioi euro. Zenbateko handiena duen hurrengo autonomia erkidegoa Aragoikoa da, 9,5 milioi eurorekin. Frantziar eskualdeei dagokienez, Occitanieko Eskualdea nabarmendu da, programatutako EGEFren 25 milioi eurorekin.

Ardazkako sailkapenari erreparatuz, nabarmendu dezakegu 1. Ardatzean, “Berrikuntza eta Lehiakortasuna dinamizatzea”, 22 proiektu programatu direla. Gainera, onartutako EGEF programa gehien eta - 20 milioi eurorekin - EGEF zuzkidurarik handiena duena da. 2. ardatzean, “Aldaketa klimatikorako egokitzapena sustatzea, baita arriskuen prebentzioa eta kudeaketa ere”, 6 proiektu 11,4 milioi euro programatu dira. 3. ardatzean “Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa, erabilera jasangarria sustatzea” 14 proiektu onartu dira eta 19,2 milioi euro jasoko dute. 4. ardatzak, “Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea”, EGEF funtsaren 10 milioi euro jasoko ditu 6 proiekturentzako. Eta azkenik, 5. ardatzean, “Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea”, 14 proiektu onartu dira eta EGEF funtsaren 10,6 milioi euro jasoko dute.

Euskal Autonomi Erkidegoa programatutako 62 proiektuetako 23tan dago, hau da, proiektuen %37an. 23 proiektu horien kostu osoa 35 milioi euro ingurukoa da, eta horietatik 8,8 milioi euro euskal bazkideen inbertsio esklusibokoak dira. Horiek, EGEFen 5,7 milioi euroko laguntza jasoko dute.

EAEko bazkideak dituzten proiektuen guztizko inbertsioaren batezbestekoa 382.644 euro izan da. Onetsitako proiektuen artean, inbertsio txikiena duena 87.638 eurokoa izan da (Transversalis), eta inbertsio handiena 831.429 eurokoa (Helinet).

Bigarren deialdi honetan zehar, zuzenbide publikoko 13 erakunde eta zuzenbide pribatuko 20 erakunde izan dira EGEF laguntzen onuradunak. Guztira, erakunde horietako 10ek taldeburu gisa jardun dute, hau da, proiektua, bere osotasunean, burutu dadin bermatzeko arduratu dira.

Ardazkako sailkapenari erreparatuz, nabarmendu dezakegu 1. Ardatzean, “Berrikuntza eta Lehiakortasuna dinamizatzea”, 9 proiektu programatu direla euskal sustatzaileekin eta EGEF programaren 2,1 milioi euro izango dituztela. 2. ardatzean, “Aldaketa klimatikorako egokitzapena sustatzea, baita arriskuen prebentzioa eta kudeaketa ere”, 3 proiektu onartu dira eta 1,1 milioi euro jasoko dute. 3. ardatzean, “Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa, erabilera jasangarria sustatzea” euskal sustatzaileak dituzten proiektu 2 daude eta EGEF funtsaren ia 234.000 euro izango dituzte. 4. ardatzean, “Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea”, EGEF funtsaren 1,2 milioi euro baino gehiago jasoko duten 2 proiektu programatu dira. Eta azkenik, 5. ardatzean, “Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea”, euskal sustatzaileekin 6 proiektu programatu dira eta EGEF funtsaren ia 1,1 milioi euro jasoko dute.

EAEko bazkideen inbertsio handiena duten proiektuak 1. ardatzean daude (“Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea”), EAEko sustatzaileen inbertsio osoaren % 38rekin, eta, ondo-ondoan, 4. ardatzekoak (“Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea”), % 21ekin.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**Interreg V-A ESPANIA-FRANTZIA-ANDORRA 2014-2020. 2 Deialdia**
**EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak**
**2017**

| Ardatza | Invertsio Lehentasuna | Proiektua Kopurua | Akronimoa | | Inbertsioa guztira | EGEF guztira | EAEko bazkidearen inbertsioa | Eako bazkidearen EGEF |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 1b | | EFA139/16 | EMENSASPI | 716.423 | 465.675 | 329.802 | 214.371 |
| | | | EFA142/16 | ORHI | 1.992.538 | 1.295.150 | 659.588 | 428.732 |
| | | | EFA148/16 | REDPRION | 2.000.000 | 1.300.000 | 400.000 | 260.000 |
| | | | EFA152/16 | TESTACOS | 1.291.569 | 839.520 | 158.759 | 103.193 |
| | | | EFA194/16 | TNSI | 1.913.052 | 1.243.484 | 293.093 | 190.511 |
| | | | EFA208/16 | ARDI | 1.155.073 | 750.797 | 461.912 | 300.243 |
| | | | EFA227/16 | LINGUATEC | 1.227.500 | 797.875 | 661.400 | 429.910 |
| | | | EFA253/16 | BIOPLAST | 1.495.590 | 972.134 | 200.000 | 130.000 |
| 1b guztira | | 8 | | | 11.791.745 | 7.664.634 | 3.164.554 | 2.056.960 |
| | 3b | | EFA278/16 | PYRENART | 2.003.493 | 1.302.270 | 104.000 | 67.600 |
| 3b guztira | | 1 | | | 2.003.493 | 1.302.270 | 104.000 | 67.600 |
| 1 ardatza guztira | | 9 | | | **13.795.237** | **8.966.904** | **3.268.554** | **2.124.560** |
| 2 | 5a | | EFA210/16 | PIRAGUA | 1.848.431 | 1.175.735 | 390.391 | 253.754 |
| 5a guztira | | 1 | | | 1.848.431 | 1.175.735 | 390.391 | 253.754 |
| | 5b | | EFA200/16 | HeliNET | 2.548.479 | 1.656.511 | 831.429 | 540.429 |
| | 5b | | EFA250/16 | ALERT | 3.399.275 | 2.209.529 | 453.911 | 295.042 |
| 5b guztira | | 1 | | | 5.947.754 | 3.866.040 | 1.285.340 | 835.471 |
| 2 ardatza guztira | | 3 | | | **7.796.184** | **5.041.775** | **1.675.731** | **1.089.225** |
| 3 | 6c | | EFA251/16 | PATRIM+ | 1.250.000 | 812.500 | 200.000 | 130.000 |
| 6c guztira | | 1 | | | 1.250.000 | 812.500 | 200.000 | 130.000 |
| | 6d | | EFA224/16 | FAUNAPYR | 545.300 | 354.445 | 165.800 | 107.770 |
| 6d guztira | | 1 | | | 545.300 | 354.445 | 165.800 | 107.770 |
| 3 ardatza guztira | | 2 | | | **1.795.300** | **1.166.945** | **365.800** | **237.770** |
| 4 | 7c | | EFA126/16 | E-MOBASK | 1.934.228 | 1.182.358 | 1.144.220 | 743.743 |
| | | | EFA268/16 | SMARTMOB | 2.108.627 | 1.370.607 | 676.571 | 439.771 |
| 7c guztira | | 2 | | | 4.042.855 | 2.552.966 | 1.820.791 | 1.183.514 |
| 4 ardatza guztira | | 2 | | | **4.042.855** | **2.552.966** | **1.820.791** | **1.183.514** |
| 5 | 8e | | EFA162/16 | LLL-TRANSVERSALIS | 1.810.540 | 1.138.077 | 87.638 | 56.965 |
| | | | EFA170/16 | ICTRAINING40 | 441.525 | 286.991 | 154.400 | 100.360 |
| | | | EFA252/16 | Irakaslegaiak AEN | 659.660 | 428.779 | 202.658 | 131.727 |
| | | | EFA260/16 | COOPWOOD | 1.027.600 | 667.940 | 455.000 | 295.750 |
| 8e guztira | | 4 | | | 3.939.325 | 2.521.787 | 899.696 | 584.802 |
| | 9a | | EFA128/16 | MIGAP | 1.943.726 | 1.259.703 | 260.696 | 169.453 |
| | | | EFA151/16 | EKIN | 764.731 | 485.375 | 218.587 | 142.082 |
| | | | EFA258/16 | SAREA | 568.515 | 369.535 | 292.533 | 190.146 |
| 9a guztira | | 3 | | | 3.276.973 | 2.114.613 | 771.817 | 501.681 |
| 5 ardatza guztira | | 7 | | | **7.216.298** | **4.636.400** | **1.671.512** | **1.086.483** |
| Guztira | | 23 | | | 34.645.874 | 22.364.990 | 8.802.388 | 5.721.552 |

Interreg POCTEFA

**Interreg V-A ESPANIA-FRANTZIA-ANDORRA 2014-2020. 2 Deialdia**

**EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak**

| Ardatza | LI | Proiektu Zenbakia | Akronimoa | Bazkideak | EGEF |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 1b | EFA139/16 | EMENSASPI | LURGINTZA S.COOP | 100.364,64 |
| | | | | NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACION Y DESARROLLO, S.A. | 114.006,75 |
| | | EFA142/16 | ORHI | Asociación Cluster de Industrias de Medio Ambiente del País Vasco | 81.374,80 |
| | | | | AZARO FUNDAZIOA | 157.072,50 |
| | | | | SAIOLAN, S.A. | 190.284,90 |
| | | EFA148/16 | REDPRION | ASOCIACIÓN CENTRO DE INVESTIGACIÓN COOPERATIVA EN BIOCIENCIAS | 214.500,00 |
| | | | | ATLAS MOLECULAR PHARMA S.L | 45.500,00 |
| | | EFA152/16 | TESTACOS | Laboratorio de Salud Pública de Bizkaia. Direction de la santé publique et des | 103.193,35 |
| | | EFA194/16 | TNSI | BIHURCRYSTAL S.L. | 88.497,50 |
| | | | | Agencia Estatal Consejo Superior de Investigaciones Científicas | 102.013,17 |
| | | EFA208/16 | ARDI | Ardiekin S.L. | 49.075,00 |
| | | | | NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario S.A. | 251.167,80 |
| | | EFA227/16 | LINGUATEC | ELHUYAR FUNDAZIOA | 195.650,00 |
| | | | | EUSKALTZAINDIA - REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA | 130.422,50 |
| | | | | UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA | 103.837,50 |
| | | EFA253/16 | BIOPLAST | FUNDACION GAIKER | 130.000,00 |
| | 3b | EFA278/16 | PYRENART | Ayuntamiento de Bilbao | 67.600,00 |
| 2 | 5a | EFA210/16 | PIRAGUA | Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea | 134.796,61 |
| | | | | Agencia Estatal Consejo Superior de Investigaciones Científicas | 78.839,59 |
| | | | | Instituto Geológico y Minero de España | 40.117,99 |
| | 5b | EFA200/16 | HeliNET | OSAKIDETZA - Servicio Vasco de Salud (Servicio de EMERGENCIAS) | 540.428,85 |
| | | EFA250/16 | ALERT | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA | 295.042,06 |
| 3 | 6c | EFA251/16 | PATRIM+ | Unión Temporal de Empresas ZIUM | 65.000,00 |
| | | | | Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea | 65.000,00 |
| | 6d | EFA224/16 | FAUNAPYR | Aranzadi Zientzia Elkartea | 107.770,00 |
| 4 | 7c | EFA126/16 | E-MOBASK | Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa | 319.816,25 |
| | | | | Compañía del Tranvía de San Sebastián | 423.926,75 |
| | | EFA268/16 | SMARTMOB | Ayuntamiento de Irun | 392.971,00 |
| | | | | Consorcio Transfronterizo Bidasoa-Txingudi | 46.800,00 |
| 5 | 8e | EFA162/16 | LLL-TRANSVERSALIS | Fundación para la Formación Técnica en Máquina-Herramienta | 56.964,70 |
| | | EFA170/16 | ICTRAINING40 | ASOCIACIÓN DE INDUSTRIAS DE LAS TECNOLOGIAS ELECTRÓNICAS Y DE LA INFORMACIÓN | 100.360,00 |
| | | EFA252/16 | Irakaslegaiak AEN | GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi | 131.727,39 |
| | | EFA260/16 | COOPWOOD | Asociación Patronal de Carpinteros de Gipuzkoa | 157.950,00 |
| | | | | TKNIKA | 137.800,00 |
| | 9a | EFA128/16 | MIGAP | TEATRO PARAÍSO S.A.L. | 130.000,00 |
| | | | | UNESCO ETXEA – Centro UNESCO del País Vasco | 39.452,72 |
| | | EFA151/16 | EKIN | Asociación Agiantza Elkartea | 41.631,85 |
| | | | | AGINTZARI SCIS | 48.126,65 |
| | | | | BIZITZEN FUNDAZIOA | 52.323,23 |
| | | EFA258/16 | SAREA | NAZARET FUNDAZIOA | 141.875,84 |
| | | | | UNIVERSIDAD DE DEUSTO | 48.270,56 |
| EGEF guztira | | | | | 5.721.552,45 |

### 3.3.- 3. deialdia

